

AURKEZPENA

Inoiz baino pottologoa sortu zaigun liburu honek partaidetza zabala dakarkigu: orotara 11 artikulu bildu dira, 20 partaide baino gehiagoren artean idatzitakoak eta, partaide horien artean, altzatar asko biltzen dituzten elkarreka aipatu behar ditugu bereziki; Altza bere orokortasunean eta zonalde eta gune ezberdinak (Herrera, Larratxo, Buenavista, San Markos, Mendiola, Gaiztarrro,...) azaltzen dira.

Hona hemen bildutako atzeranzko eta aurreranzko begiradak:

A. Kortajarenak sagardotegietako kontuak azaltzen dizkigu, “beste garai batean” Altzan zer gertatzen zen azalduz.

Joan den 95ean beren hamarkada ospatu zuten Altzako Emakumeen Elkarteen eskutik inmigrazioa hobeto ezagutzeko parada izango dugu, baina ez ikuspegi soziologikotik, baizik eta gizabanakoaren ikuspuntutik.

D. Zapiainek 1632 urterarte garamatza, alardearen ospakizuna Altzan zergatik eta zertarako egiten zuten ezagutzeko asmotan.

J.C. Morak Urumea bailaran zehar murgiltzen gaitu, bertako biztanleak, mendiak baliabide izanik, nola bizi ziren ezagutzeko aukera emanez.

J.C. Etxebeste eta I. Landa XIV eta XV. mendeetara joan dira, garaiko aldaketa nagusiak eta egituratze berriak, sozialak nahiz politikoak, Altzan nola garatu ziren jakinazteko.

A. Calvok, San Markos mendia eta bere inguruak erreferentziatzat hartuz, duela 100 urte zer gertatzen zen hiru udalen artean —Erreenteria, Astigarraga eta Altzaren artean, alegia— azalduko digu.

L.I. Vierak duela 44 urte Buenavistako harrobian aurkituriko 60 milioi urteko fosil baten berri dakarkigu gogora.

A. Cañamerok Altzako euskararen egoera aztertu du, 81eko datuetan oinarrituz.

A. Martinez eta Murillo Gaiztarron kokatu dira, bere sorreratik gaur egun arteko ezaugarriak bilatuz.

Herrieko lagunak diren M.A. Zapirain eta E. Arrieta, Herrerari buruzko ikuspegi berria emateko, Herrera eta Altzaren arteko loturak hartu dituzte aitzakiatzat.

L. Garmendiak Mendi-zaleak elkarteari eskeini dizkio bere hitzak, elkartearen *ibilaldiak* plazaratzeko asmotan.

A. Alfaro eta J. Urrusolok komunikabideek jasotzen duten Altzari buruzko irudia aztertzeari ekin diote, nola ikusten gaituzten eta zer dela eta ematen den gure berri.

X. Aranak joan den 95ean 10 urte bete zuen Altzako Askagintza elkartearen historia eta nahiak azalduko ditu.

J.R. Fernandezek txango berri bat proposatuko digu, beti bezala txoko berriak aurkitzeko parada ematen digularik, oraingo honetan Mendiola aldean.

B. Barandiaranen bertso paperak herritarra eta herriaren istoriak lotu ditu, bere bizitzarena eta Altzakoarena, alegia.

J.M. Irigoienen partaidetzak Larratxon hartu du abiapuntua eta, beti bezala, aurkezpen zabalagoa egiteko hitzik ezin aurkitu.

Azkenik, J. Garridok liburuaren mezua bere horretan ederki jaso du: erlauntzaren hamar geletan zehar dabiltsan hiru erleak —lanaren adierazlerik nagusienak— dira Altzan hamar urte hauetan sorturiko hiru liburuak.

Egituraketari dagokionez, aurrekoaren iloari jarraitu diogu: idazleak erabili duen jatorrizko hizkuntza —euskarra edota gaztelania— errespetatu dugu, aurretik beste hizkuntzan sarrera bat doalarik. Idazle bakoitzaren hizkera berezia ere errespetatu nahi izan dugu.

Beti bezala, gogoratu nahi dizuegu hemen tokia baduzuela. Hitz hauek Altzarekiko maitasuna eta harrotasuna agertu nahi dute, inork ez ahazteko horrelako ekintzetan gordetzen den izpi-ritu baikor eta positiboa ere Altza dela. Hamar urte hauetan elkarrekin egindako bidea eta zuengandik —altzatar guztiok— jasotako laguntza gure ospakizun bihurtu nahi dugu. Laister berriro elkarrekin izango garelakoan, inoiz baino gehiago agur bero bat.

Altzan 1996ko urtarrilaren 25ean

*Casares Kultur Etxea
KULTUR UDAL PATRONATU*

PRESENTACION

Este libro que ha surgido más “gordito” que nunca es especialmente participativo: en total se han reunido 11 artículos, escritos entre más de 20 participantes; entre ellos hay que resaltar algunas asociaciones que aúnan a muchos altzatarras; refleja tanto Altza en su conjunto como teniendo en cuenta sus diversas zonas y lugares (Herrera, Larratxo, Buenavista, San Markos, Mendiola, Gaiztarro,...).

He aquí esas miradas hacia el pasado y el futuro:

A. Kortajarena nos cuenta historias de las sidrerías, buena excusa para conocer que pasaba ‘en otros tiempos’, en Altza.

Las Asociaciones de Mujeres de Altza que también celebraron sus diez años el pasado 95, nos ayudarán a conocer mejor y, sobre todo, desde un punto de vista más humano algunos aspectos de la inmigración.

D. Zapirain nos transporta hasta el año 1632 para conocer cómo y para qué se celebraba el alarde en Altza.

J.C. Mora nos introduce en el valle del Urumea, dándonos la oportunidad de conocer cómo vivían sus habitantes, gracias a los medios que les proporcionaban el monte.

J.C. Etxebeste e I. Landa se han alejado hasta los siglos XIV y XV, épocas de cambios importantes y de estructuración social y política, ¿qué pasó en Altza?

A. Calvo, cogiendo el monte San Markos y sus alrededores como referencia, explica qué pasaba hace 100 años entre los tres ayuntamientos de Rentería, Astigarraga y Altza.

L.I. Viera nos recuerda un hallazgo importante: el de un fósil de 60 millones de años, encontrado hace 44 años en la cantera de Buenavista.

A. Cañamero, a partir de los datos recogidos en el año 81, analiza la situación del euskara en Altza.

A. Martínez y I. Murillo se han situado en Gaiztarro, buscando sus características principales desde sus comienzos hasta la actualidad.

M.A. Zapiain y E. Arrieta, miembros de Herripe, nos presentan una nueva perspectiva de Herrera a partir del análisis de las relaciones entre Herrera y Altza.

L. Garmendia ha dedicado sus palabras a la asociación "Mendi-zaleak", de quien podremos conocer sus "andaduras".

A. Alfaro y J. Urrusolo han analizado la imagen que sobre Altza ofrecen los medios de comunicación, cómo se nos ve y por qué motivos se nos conoce.

X. Arana nos explicará la historia y aspiraciones de la asociación Askagintza de Altza que también cumplió su décimo aniversario el pasado 95.

J.R. Fernandez nos propone una nueva excursión, nuevamente nos ofrece la oportunidad de conocer nuevos lugares, esta vez en la zona de Mendiola.

Los bertsos de B. Barandiaran aúnan persona y pueblo, es decir, su vida y la de Altza.

La aportación de J.M. Irigoién parte de Larratxo y, una vez más, la palabra es insuficiente para mejor presentación.

Por último, J. Garrido ha recogido fielmente el mensaje de este libro: las tres abejas —el mejor exponente del trabajo— vuelan alrededor de 10 celdas de una colmena son los tres libros que han surgido en diez años de trabajo en Altza.

En cuanto a la estructura, se ha seguido la línea del anterior: hemos respetado la lengua original de cada escrito —euskarra y/o castellano— con una introducción en la otra lengua. También hemos respetado el lenguaje propio de cada autor/a.

Como siempre queremos recordar que aquí tenéis vuestro lugar. Estas líneas quieren recoger el cariño y el orgullo que sentimos por Altza, que nadie olvide que el espíritu optimista y positivo que llevan estas acciones también son Altza. Queremos que el camino realizado juntos, con todos los altzatarra, la ayuda que hemos recibido de vosotros durante estos diez años, sean motivo de celebración. Seguros de que pronto volveremos a estar juntos, hoy más que nunca un saludo afectuoso.

Altza, 25 de enero de 1996.

Casa de Cultura Casares
PATRONATO MUNICIPAL DE CULTURA